

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

ABEGI ETXEKO MENUEN KONTRATUARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Abegi Etxeari erantsitako eraikinari buruz, Udalbatzan azter dadin. Mozioa hilabete honetan batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak larrialdiko ostata emateko baliabideen artean, Udalaren Gizarte Abegi Etxeari (UGAE) erantsitako eraikina dago. Gizarte Ekintzaren azken urteotako txostenetan, baliabide horren erabilerak gora egin duela adierazten da. Izan ere, 2014an, 31 bizikidetza unitate zeuden, 51 adingaberekin, eta 312 okupazio egun izan ziren guztira; 2015ean, 39 familia, 65 adingaberekin, eta 337 okupazio egun, eta aurten, berriz, 28 familia. Deigarria da 2016an bizikidetza unitateen kopuruak behera egin zuela, baina erabilitako egunen kopuruak, berriz, gora egin zuela 365era iritsi arte. Beraz, espazioaren erabilera intentsiboari buruzko gogoeta egin behar da; izan ere, prekariora da, aurreko udalbatzetan adierazi izan den bezala, eta ez da eroso larrialdi egonaldietarako.

2016ko otsailean, mozio bat aurkeztu genuen, Abegi Etxean ostatu hartzen zuten familien (adingabekoekin) oinarrizko beharren estaldura hobetzeko. Leku horretan, egonaldiak ez dira hiru gaukoak baino luzeagoak izaten, salbuespenak salbuespen, baina errealitatea nagusitzen ari da, eta familientzako beste gela batzuk lortzeko aukera, askotan, atzeratu egiten da, edota, zenbait egoera tarteko, erantsitako eraikinean denbora gehiago geratzeko aukera balioesten da.

Gogorarazi behar dugu orduan ere eskatu genuela hobetu egin behar zela erantsitako eraikinean ostatu hartutako adingabekoen elikadura eta eskolatzea denbora luzeagoz. Halaber, neurriak hartzearen beharra azpimarratzen genuen, bestela ahultasun eta pobrezia egoerak iraunarazten ditugu adingabe horien artean, lo egiteko leku egonkor bat ez dutelako.

Gure ustez, premiazoak dira, batez ere, adingabekoen elikadura hobetzeko eman behar diren urratsak. Dieta orekatua behar dute, bizi-garapen positiboa izan dezaten, baina ematen den menua berdina da helduentzat zein haurrentzat, eguneko behar diren bost otorduak kontuan hartu gabe. Era berean, bularreko haurren egoera bereziki kezagarria da; gainera, oso instalazio prekarioetan daude, konforterako ia espaziorik gabe.

Zinegotzi ordezkariak batzordean adierazi zuen ez dutela menuen kontratua aldatzeko asmorik, nahiz eta kontratatutako menuak ez bete erantsitako eraikinean batera egon daitezkeen pertsona guztien beharrak. Bestalde, azaldu zuen erantsitako eraikinean sukalde bat dagoela janaria prestatzeko.

Gure udal taldea kezkatuta dago eraikin horretan ostatu hartzen duten pertsonen elikaduraz, adingabekoen elikaduraz batik bat. Oinarrizko eskubide bat da eta, horregatik, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio Abegi Etxeari erantsitako eraikineko erabiltzaileei galdeketa bat egiteko hiru hilabeteko epean, haien egonaldiaren konfortari buruzko eta egun betetzen ez diren beharrei buruzko datuak jasotzeko, instalazioa hobetzeko helburuarekin.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio oraingo menuak osatzeko, beste elikagai batzuekin batera, hazten ari diren adingabeek eguneko oinarrizko bost otorduak izan ditzaten.

Izpta.: Amaia Martin,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.